

2019ko maiatzaren 24a

Lankide agurgarri hori,

Dagoeneko bost hilabete igaro dira ASEICA erakundeko Zuzendaritza Batzorde berria hasi zenetik. Denbora horretan, gure ekintza bultzatu dugu antolaketaren, erakundeen, zientziaren eta politikaren arloan ASEICA jarduerak indartzeko. Ildo estrategiko horietako bat katalizatzeke, urte hasieran Zuzendaritza Batzordea hainbat lan-arlotan antolatzea erabaki genuen. Horien artean, **ASEICA-Komunikazioa** (Ana Cuendak koordinatua), **ASEICA-Emakume** (Marisol Soengasek koordinatua) eta **ASEICA-Gazte** (María Caffarelek koordinatua). Era berean, atal bat sortu genuen, ASEICA gaixo elkarteekin eta erakunde zientifikoekin lotzeko, Minbiziaren aurkako Espainiako Elkarte (AECC) eta **European Association for Cancer Research** (EACR) esaterako (Angelica Figueroak koordinatua). Gutun honekin batera doan "Newsletter" saioan, gure gizartearen etorkizunerako funtsezko arlo estrategikoetan funtzionamendua hobetuko duen ASEICA elkarteko Zuzendaritza Batzordeko lanen banaketa berriarekin infografia bat aurkezten dizuegu.

Gaur egun, komunikabideetan egotea da ikusgarritasuna izateko modu bakarra. Horixe da **ASEICA-Komunikazioak** egiten duen funtsezko lana. Hona hemen bere jardueraren emaitza batzuk: komunikazio eredu korporatibo homogeneoagoak lantzea bazkideentzat eta gizartearentzat, sare sozialetan egotea (Twitter, Facebook eta YouTube) eta bazkideentzat erakargarriagoak diren "newsletters" formatu berri bat. Epe motzean aurrerapen berriak ikusiko ditugu, hala nola webgune berria, irudi korporatibo modernoagoa eta video dibulgatiboak. **Ana Cuenda eta Roger Gomis**-en lanari gure esker ona adierazi nahi diegu erakundearen arlo estrategiko garrantzitsu hau martxan jartzeagatik. **Rafael López**i ere esker onak industria biofarmazeutikoarekin ezarritako kontaktuengatik.

Zuzendaritza Batzordearen iritzian, ASEICA elkarteak ezin du genero eta ikertzaile gazteen karrera profesionalarekin zerikusia duten gaiak alde batera utzi. Horixe da **Carlos Campsen** agintaldian sortutako **ASEICA-Emakumearen** natura, eta baita **ASEICA-Gaztearena**. Bost hilabete hauetan zehar, jada, ASEICA-Emakume lan-arloarn aktibitatea ikusteko aukera iza duzue, bai Emakumearen eta Neskaren Nazioarteko Egunean (otsailak 11) eta baita Emakume Langilearen Egunean ere (martxoak 8). Laster, **ASEICA-Women Workshop** (urriaren 10ean, Bilbo) ere antolatuko da, eta emakume ikertzaileen lan zailtasunak, lanbide-orientazioa eta haien lanaren babesean fokatu da. ASEICA-Emakumeak atal berezi bat ere izango du **2. ASEICA Educational Symposium**-ean, datorren azaroan Madrilan. Jarduera hauek **Marisol Soengas, Gema Bueno, Arkaitz Carracedo eta Angélica Figueroaren** lanari ezker burutu dira. Zuzendaritza Batzordekoak ez diren beste zientzialari batzuk funtzesko laguntza eskeini dute, **Maria Mayán** eta **María de la Fuente**, adibidez.

ASEICA-Gazteak protagonismo berezia izango du **2. ASEICA Educational Symposium**-ean. Bertan, zientzia-saioa eta zientzialari gazteen irteera profesionalei buruzko eztabaida-panela

antolatuko dira. **ASEICA-Gaztea** ere martxan jartzen dago lankidetzaz bideak atzerrian dauden zientzialari espainiarrak biltzen dituzten erakundeekin. Azkenik, arlo honek datorren urtean zehar gauzatuko den ekintzen katalogo bat sortzen ari da. ASEICA-Gazte arloko aktibitate hau ezinezkoa izango lirateke **María Caffarel, Héctor Peinado** eta **Verónica Torrano** izan duten inplikazio aktiborik gabe.

Ahaztu ezin dugun atal garrantzitsu bat ASEICAn kide guztientzako jarduera zientifikoak indartzea da. Gure "newsletters" en bidez ikusi duzuen bezala, aurreko bi ekimen garrantzitsu ditugu martxan alor honetan. Alde batetik, **Associação Portuguesa de Investigação em Cancro** (Aspic) delakoarekin batera, **1st ASEICA-ASPIC International Meeting on Current Trends in Immunotherapy Research and Treatments** antolatu dugu. Bere balio zientifiko intrintsekoa izateaz gain, bilera honek Aspicekin eta Portugalgo zientzialariek loturak estutzea ahalbidetuko digu. Bileran hau **Salamancan** egingo da aurtengo irailaren **12 eta 13an**. Horrelako bilerak Portugalen eta Espainian etorkizunean jarraipena izatea da gure helburua. Azkenik, aurreko lehendakariak sortutako **ASEICA Educational Symposium** bileraren bigarren ekitaldia egingo dugu **Madriren azaroaren 28an eta 29an**. Bi bileran hauek CIBERONCeko Laneko Moduluak eta Prestakuntza Programak antolatutako jardunaldi paraleloak egingo dira. Nahiz eta zuzendaritza Batzorde osoaren lanaren emaitza izan, bidezkoa da **Carlos Camps** eta **Rafael López**en aholkularitza eta fondoak biltzeko lan garrantzitsua aitortzea bilera hauek antolaketan. Bileran hauek bazkide guztiekin elkar ikustea espero dugu!

Hainbat zientzia eta gaixo-erakunderekin loturak ezartzen aritu gara, hala nola, EACR, SEOM, COSCE edo AECC. Zentzu horretan, azpimarratzekoa da gure Zuzendaritza Batzordeko kideek dagoeneko parte hartzen dutela EACR (**Arkaitz Carracedo**), COSCE (**Marisol Soengas**) eta AECCren (**Luis Paz-Ares, Arkaitz Carracedo**) kudeaketa-organoetan. Neurri hauek bitartez, ASEICAn eztabaida zientifikoan are gehiago nagusitzea espero dugu, bai Espainian zein atzerrian. ASPIC portugaleko elkartearekin egin dugun bezala gure kolaborazioak zabaltzeko jardungo dugu. Hildo honetan, funtsezkoa da guretzat Osasun Ministerioak antolatzen dagoen minbiziaren **Estrategia Nazionalaren** Aholku Batzordearen parte aktiboa izatea ASEICA.

Zuzendaritza Batzordearentzat garrantzitsua da ASEICA eragile proaktiboa izatea I+G+b sistemaren inbertsioa aldarrikatzeko eta defendatzeko. Alde batetik, gure aldarrikapen zientifikoak ezagutarazten ari gara I+G+b arloetako alderdi politikoei eta gobernuei. Hauteskundeak baino lehen bilerak izan genituen **Zientzia Estatu Idazkaritzarekin, Carlos III. Osasun Institutuko Zuzendariarekin, Senatuko Zientziako Batzordearekin eta Osasun ministroarekin**. Hurrengo legegaldian zehar horrelako ekintzekin jarraituko dugu. Bestetik, gure I+G+b sistemaren egungo egoeraren salaketa argia ezarri dugu. Arlo honetan gehien aipatutako ekintza "**Asmatu nahi dugu**" zientziaren Aldeko Manifestua izan da. Honekin bat egin zuten SOMMa erakundeko zentro guztiek, 31 ikerketa zentru edota osasun institutu ezberdinen zuzendariak, estatuko lau elkarte zientifiko, AECC eta 46 zientzialari. **El País egunkarian martxoaren 29an argitaratu zen Manifestu** honek oihartzun handia izan du estatu mailan eta nazioartean. **1.600** zientzialari eta ia **242.000** herritar sinatu dute manifestua. Berrikuntzaren Egunean **SEOMekin** batera oinarritzeko ikerkuntza, minbiziaren aurkako tratamendu berrien eta gure herrialdean ikertzaileek hasitako entsegu klinikoak egiteko inbertsio berrien beharra aldarrikatu dugu. Urte honetan zehar gure aktibitatekin jarraituko dugu era sendo baten aldarrikatzeko egungo status quoa aldatzeko garrantzia.

Bost hilabete hauek egindako jardueren laburpen txiki bat da hau. Ziur asko zuen aburuan garrantzitsuak diren ekintzak ez ditugula burutu oraindik. Horregatik, aktiboki parte hartzea animatzen zaituztegu jarduerak/ekintzak berrien proposamenen eta, noski, horien antolaketan proaktiboan. Zentzu horretan, elkarte zientifiko bat bizirik mantentzeko bere kide guztien



Asociación Española de Investigación sobre el Cáncer

Associació Espanyola d'Investigació sobre el Càncer

Asociación Española de Investigación sobre o Cancro

Cancroko Ikerketa Espiniako Elkartea

inplikazioa ezinbestekoa dela pentsatzen dugu. Hona hemen posta elektronikoko helbidea ideiak, iradokizunak eta kritikak aipatzeko: [comunicacion@aseica.es](mailto:comunicacion@aseica.es).

Aurrera!

Besarkada handi bat guztioi.

**Xosé R. Bustelo doktorea**

ASEICA erakundeko lehendakaria

**Luis Paz-Ares doktorea**

ASEICA enpresako presidentea